

Joxe Mari Aristi Garate

*Azpeitia,
Gipuzkoa
(1930)*

Aurkibidea

Biografia



Urrestillan jaio zen 1930ean. Gurasoak ere Urrestillakoak zituen eta hiru anai-arrebako sendia zuen. Taberna zuten Urrestillan, "Ezamakoa". Eskolan auzoan bertan ibili zen Valladolideko maisu batekin eta 14 urterekin Eibarko Armeria Eskolara joan zen ikasketak jarraitzera. Lanean Landetako 'Inlasa' lantegian ibili zen beste sei lagunekin elkartu eta tornuak egiten jubilatu arte.

Zintak

AZP-036

- **Proiektua:** Azpeitiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2010-01-22
- **Iraupena:** 44 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Transkribatzailea(k):** Leturia, Ane

Pasarteak

1. Umetatik tabernako lana ikasi

- **Erref:** AZP-036/002
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:00:40. **Bukatu:** 00:02:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Gurasoak Urrestillakoak ziren. Lau urte zituela hil zitzaion ama. Aitaren arreba izan zuen zuen amatzat. Etxean eta tabernan laguntzen zien izebak. Aita tabernaria zen. Tabernak Zamakua izena zuen. Aitona-amonek ere taberna zuten.

Transkripzioa

- Gurasok, hemengok, aitte o ama hemengok zien?
- Bai, hemenguek zien bai.
- Bik zien hemengok?
- Bai, baiño ama justu-justu ezautu nun nik. Nik lau urte nitula o hil zan. Ta aitte ta, gero aitten arreba ta goien bizi zin ta haiek launtzea etortzen zin taberna ta zea itea. Ta ni txikiye ta ama bezela goiko Kontxexi, zea, aitten arreba.
- Aitte zenun kaletarra, Urrestilgoa?
- Bai, bai, hortxe kalekue bai.
- Eta esan dezu taberna zenduela?
- Tabernaie, tabernikin atea zun bizimodue gure aittek!
- Tabernarie zan. Beak zeuken tabernan bat?
- E? Bai, berie, bere etxin, tabernaie ta.
- Nola zun izena tabernak?
- Ezamakua, Ezama, Ezamakua.
- Hemen, Urrestilgo kalen zeon hori?
- Hortxe, hor zeon, kalin. Oto ba al dakizu nun daon?
- Ez.
- Eztakizu. Hortxe.
- Eta zer zien, zuen aittona-amonak o horkok? Ala aittek hartu zun taberna hori?
- Bai, bai, hortxe, aittona-amonak horkotxik, bertan.

2. Valladolideko maisua eta falangeko kantuak

- **Erref:** AZP-036/003
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:02:00. **Bukatu:** 00:05:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskola eliza aurrean zegoen. 64 mutil inguru ibiltzen ziren maisu bakarrarekin. Maisuak atzamarka egiten zuen, eta zigor txiki batekin hanka-zainetan ere jotzen zien. Maisua Valladolidkoa zen, eta ez zekien euskaraz. Igandetan mezatan hitz eginez gero, eskolara joandakoan zigorra izaten zuten. Eskolatik irtetean falangeko kantuak abestera derrigortzen zituen.

Transkripzioa

- Ordun zuk ume-umetatik taberna ezautu zendun?
- Tabernan. Eskolan ´e ibili giñen pixket eta... Hamen eskolan ta...
- Hemen, nun zan eskola?
- Hortxe, hortxe bertan, hortxe aurreko elizien azpiyen, hola, tejabana bat. Maisu batekin ibiltzen giñen hiruroeta lau lagun edo, mutil kozkorrek.
- Hiruroeita lau?
- Bai, maisu batekin danak hantxe. Gero maisue gogorra zala ta esaten gendun baiño baita behar ere hainbeste mutil kozkorrekin! Zea, hola atzamarka ta iten zitun. Zigor txiki bat eukitzen zun ta harekin ´e ematen zigun hemen hanka-zaiñetan. Ta...
- Nungoa zan maisue?
- Maisue zan Valladolidkue. Ordun hamengo maisuik ez zeuen /etzeuen/. Ordun danak kanpokuk zien, danak kastellanuek. Ta gero oso elizgoie zan eo, behintzet ematen giñuzen jaietan meza nausire, danok meza nausire jun ber.Ta bea han eoten zan. Ta iñor ikusten bazun hola hizketan eo hurrengo egunien, ze, eskola jundakuen, kastigue.
- Derriorra zan ordun?
- Derriorra, jun ein ber! Jute ez baziñen e, hoixe, hizketan o ikustie nahikue zun hurrengo egunien eskola jundakuen "da!", kastigue. Belauniko eo, belauniko eonaldiye ein eo atximurkan bat eo zeeze holakon bat.
- Sekula jo zizuen?
- E? Jo? Bai, zeakin bai, zigorra... hola, zumie o zigor txiki bat eukitzen zun ta hamen, hanka atzien ta jotzen zun, bai.
- Eta erderaz ikasiko zenduen.
- Erderaz, harek ez zekiye /etzekiye/ tutik ´e euskeraz, erderaz. Ta gero atsaldeko lauek o eztakit ze ertetzen gendun, gero kanta in ber ze, "Gloria a España" o: " Gloria, gloria, tu nombre llevaremos donde quieras tú, que honrarlo [es la] ley". Kantu hori kantau ein ber gendun gero!
- Eskola sartzeakon o ertetzeakon?
- Hori erteteakun. Erteteakun. Hori ta beste... batzuten hori ta bestin beste kantuk eta, gehiyo ´re bazien hor falangekuek eta.
- Besten bat badakizu? Gogon daukezu?
- "Por dios, por la patria y el rey lucharon nuestros padres. Por dios, por la patria y el rey lucharemos nosotros también."
- Ta kanta in behar.
- Kanta in ber. Ta hoixe. Gero izeten zan hor "novenas de..." konzeziyotako nobenak eta re izeten zien, ta ordun iten gendun nobenie ein, erteteakuen edo, nobena hori, letu ta errezau, aita gure bat eo ze, ein ta ala, "a la calle".

- Goiz ta atsalde izaten zenun eskola?
- Bai, goiz ta atsalde, bai. Baiño, pentsa zazu, maisu batekin hirurotaka ibiltzen giñen, e! Danak hantxe. Batzuk hamar urte, bestiek sei urte, bestiek hamaike... Askok lagatze ziyoben hamabi-hamahiru urtekin, basarrikuk eta.
- Zu zenbat urte arte ibili zinen?
- Ni ibili nintzen hamalau urte arte ibili nintzen hor. Ta gero Eibarren ibili nintzen, zerien, "Escuela de Armería"n.

3. 'Don Quijote' eta irakurketa

- **Erref:** AZP-036/004
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:05:35. **Bukatu:** 00:07:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Irakurtzen, idazten eta geografia ikasi zuen. Don Quijote de la Mancha liburua zuen irakurtzen zuten gelan.</p>

Transkripzioa

- Ze ikasten zenduen hemen Urrestillan?
- E?
- Ze ikasten zenduen, dotrina o?
- Ze ikasten zan? Joño, ze ikasten zan? Ba letzen, irakurtzen, letzen, eskribitzen ta hoixe, base natural hoiek. Letzen ta eskribitzen ta. Gero mapie haundiye eoten zan ta mapan´e "aquí está esto, Guadalajara". Hamen zera dao, Valentzia, hamen Sevilla ta geografía zea hori.
- Euskeraz hitzik itten bazenduen?
- E?
- Euskeraz hitzik itten bazenduen, kastigun bat?
- Ez.
- Hala uzten zizuen?
- Uzte uzte eztakit uzten zun, baiño hitz eitie izengo gendun. Gu mutil kozkorak erderaz ez gekigun ta! Hitz eitie izengo gendun euskeraz. Ta gero bere liburue zun 'Don Quijote de La Mancha', zea liburu haundi bat da, holakoxe loriye. Jartzen giñen ileran hure pupitrin hola, hure bea erdiyen dala, ta ileran jartzen giñen zazpi o zortzi mutil, bakoitzek liburu bana hartu ta hure irakurri in ber, zea. Ta "A ver tú! Empieza". Ta letze zun ta gero uste ez zendula, "a ver tú!", esaten zun ta aber segitzen ziyozun o ez ziyozun /etziyozun/ haren lektura horri. Ta batzuk segitzen ziyoben baiño beste batzuk... beste zea ta... Ta gero ordun badakizu.
- Ordun´e kastigue.
- Zeoze kastigue, bai ba. Hola.

4. Apaiza txiza egiten

- **Erref:** AZP-036/006
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:07:31. **Bukatu:** 00:08:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Jendeak eskolatik irteteko presa izaten zuen. Eskola atzean, txizatokia zegoen; eta, bertan, apaiza txiza egiten ikusi zutenean, harrituta geratu zirela kontatzen du algaraka.

Transkripzioa

- Hoixe. Ni akordatzan naiz behin eskolatik lau terditan o erten gendun mutil kozkorak eskaillerak goitik behera jo-ta batzuk hankaz gora ta erteteko amorratzen eoten zan, ba, jendie! Ta batzuk lehen erteten zebe ta bestik lehen ta. Behin gu eskaileatatik, ni ordun, ni ta bestiek eskailleretan behera guzela lehelengo erten zebe haiek, hamen atzin zea zeuen... hamen atzin zea zeuen, pixe iteko toki txiki bat zeuen, txiki-txiki bat. Holaxe aurrin ta hola [...]. Etorri zagu lehelengo aurretik erten zuna, "Hi,hi! Zea, apaize txixeiñin ai dek, hi, txixeiñin ai dek!" ta "bai?" ta jo-ta danok jun ta hari beire, zea, apaize txixeiñin ai zala txokaute danok! Ta holakotxe kontuek.

- Apaizak errespetua emango zon gaiñea garai hartan.

- Jolin, baiño guk ez gendun... ignorantziye gendun! Apaizek txixe in ber zunik ez gendun ba guk pentsatzen. Ta "Apaize txixeiñin ai dek" ta hortxe gitxitxik danok hari beire, hure ikustea!

5. Apaizari "ave maria purisima"

- **Erref:** AZP-036/007
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:08:37. **Bukatu:** 00:09:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa

Laburpena:

<p>Apaizarekin gurutzatutakoan "ave maria purisima" esan behar izaten zen. Apaizek sotana luzea ibiltzen zuten; Goierri aldeko On Tomas Telleria apaiza gogoratzen du.</p>

Transkripzioa

- Apaiza ondón pasatzen zanen reberentzin bat o zeoze eitten ziozuen?

- Bai, "Ave maria purisima" ein ber zitzekon. "Ave maria purisima". Beaiék sotana haundiyekin ibiltzen zien.

- Zer zan hemengoa apaiza?

- Ez, ez, hamengue ez. Hamen inguruko herri hauetako ingurukue. Zeakue ta, goierrikue ta, Goierriko Don Tomas Telleria, eztakit ze herri dan, hor Goierri aldekie.

6. Umetako jolasak: tiragoma, zibota, txorien habi bila...

- **Erref:** AZP-036/009

- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:09:21. **Bukatu:** 00:10:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Frontoian ibiltzen ziren jolasean; pilotan, futbolean, lasterka... Udazkenean, usopasa garaian, tiragoma hartuta mendira joaten ziren helduek egiten zuten moduan, ehizan egin nahian. Zibotarekin ere ibiltzen ziren jolasean. Txori kabi bila ere ibiltzen ziren.

7. Tabernako lana eta alpargata josteta

- **Erref:** AZP-036/011
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:10:48. **Bukatu:** 00:12:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Aitaren tabernan otorduak ematen zituzten. Sagardoa ere egiten zuen. Taberna atzean lokal bat zegoen, eta han sagardo barrikak egoten ziren. Sasoi hartan diru gutxi zegoen, eta tabernetan ez zen jende asko ibiltzen; horregatik aita alpargata josten aritzen zen.

8. Hiletaren ondoren bazkaria tabernan

- **Erref:** AZP-036/013
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:12:48. **Bukatu:** 00:13:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

Hiletaren bat izaten zenean, bazkaria egiten zuten hiletan bildutakoek. Bazkaritik erdi txispatuta irteten ziren. Hildakoaren familiak ordaindu behar izaten zuen bazkaria, eta askotan komeriak izaten zituzten.

9. Ardo beltza, likorea eta tabakoa... tabernako egunerokoa

- **Erref:** AZP-036/014
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:13:46. **Bukatu:** 00:16:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Ez zen txikiteorik egiten. Tabernan biltzen zen jendea karta-jokoan ibiltzen zen; tutean, musean... Botila bat ardo ateratzen zuten, eta galtzen zuenak

ordaindu behar izaten zuen botila. Nafarroako ardo beltza edaten zela dio. Torranoko (Dorrao, Nafarroa) bi ardo banatzaile ibiltzen ziren inguruetan. Ardoa larruzko zahagietan ekartzen zien. Likoreak ere edaten ziren. Tabakoari buruzko kontuak ere aipatzen ditu.

10. Igandeetan tripaki zopak zerbitzatzera

- **Erref:** AZP-036/015
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:16:18. **Bukatu:** 00:17:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Tabernan ez zen emakumerik ibiltzen. Tabernan era guztietako lanak egin behar izaten zituen. Igande eguerdietan jendea meztatik irtendakoan tripaki zopak jatera joaten zen tabernara. Zerbitzatzeko nola ibiltzen zen kontatzen du. Urrestillan ze taberna zeuden aipatzen du: 'Txikuri'-nekoa, 'Kapain'-goa eta 'Agustina'.</p>

11. San Joan festak eta Aste Santuko prozesioak

- **Erref:** AZP-036/017
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:18:00. **Bukatu:** 00:19:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua

Laburpena:

<p>San Joanetan aizkolariak, trikitilariak... izaten ziren Urrestillan. Beraiek ez zuten tabernan trikitilaririk jartzen, baina 'Txikuri' tabernakoek bai, eta jende asko izaten zuten. Aita ez omen zen musikazalea. Aste Santuan prozesioa izaten zen. Klean aldareak jartzen zituzten. Prozesioa nolakoa izaten zen azaltzen du. Aste Santuan karta-jokoan egitea bekatu zen.</p>

12. Aste Santuan karta-jokoa bekatu

- **Erref:** AZP-036/018
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:19:50. **Bukatu:** 00:20:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Aste Santuan taberna irekita egoten zen, baina karta-jokoan egitea bekatua zen. Gizon batzuk taberna atzeko lokalean, sagardoa edukitzen zuten tokian, aritzen ziren jokoan.

13. Armeria eskolan ikasitakoak

- **Erref:** AZP-036/020
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:20:58. **Bukatu:** 00:23:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

14 urterekin Eibarko Armeria eskolara joan zen. Hiru urte egin zituen Ermuko lehengusu txiki batzuen etxean. Linan, ajustean, fresadoran, taladroan... ibiltzen ikasi zuen. Hasieran zizelarekin kolpe asko hartzen zituen, gero begiratu ere egin gabe jotzen ikasi zuen. Ikasketak bukatutakoan lana eskaini zioten Eibarren bertan, baina etxera itzultzeko gogo zuen. Gero, sei lagunen artean Landetan lantegia ireki zuten.

14. Landetako lantegia

- **Erref:** AZP-036/021
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:23:54. **Bukatu:** 00:24:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:

Tornuak egiten hasi zen beste sei lagunekin Landetan. Inlasa zuen lantegiak izena. Alemaniara, Mexikora ere egin zuten lana.

15. Lantegiko kontuak

- **Erref:** AZP-036/023
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:25:05. **Bukatu:** 00:27:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:

<p>Lantegia martxan jartzeko makinaria Zumaiatik ekarri zuten. Piezak nola egiten zituzten azaltzen du. Katalogoak bidaltzen zituzten makinak saltzeko. 35 urtean aritu zen lantegian lanean. Soldata txikiak izaten zirela dio, nahiz eta gabon garaian-eta langile arruntek baino zertxobait gehiago kobratzen zuten.</p>

16. Urrestilla inguruko lantegiak...

- **Erref:** AZP-036/025
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:27:20. **Bukatu:** 00:28:44

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:

Urrestilla inguruan altzari lantegiak zeuden: 'Agirre', 'Damaso Azkue', 'Azkue & Compañía'... Egurra lantzen zela dio. Soraluzen mekaniko tailerrean ibilitako batekin hasi zen lantegi txiki batean lanean, baina mekaniko tailerrak Azpeitian ez duela indarrik dio. Urrestilla inguruan zerra txikiak ziren, baina urteekin desagertu egin dira.

17. Gortina atzetik soldaduei begira

- **Erref:** AZP-036/027
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:29:12. **Bukatu:** 00:31:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Gerra denboran, sei urte zituen. Beasain aldetik zetorren soldadu kuadrilla Urrestillatik pasatu zela gogoratzen du. Bera gortina atzetik begira egon zen soldaduak pasatzen ziren bitartean. Soldaduak Urrestillako plazan bildu ziren janaren banaketa egiteko: kontserbak ematen zizkien.</p>

18. Toalleko errotatik irina estraperloan ekarri

- **Erref:** AZP-036/028
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:31:16. **Bukatu:** 00:32:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserrria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Gosete handia egon zen. Ogia hauts egiten zen, eta patatarik ez zegoen; haren ordeaz, batata jaten zuten egosita. Jose Mariren aitak Toalleko errotatik estraperloan ekartzen zituen garia eta irina tabernarako. Errotak zarata egiten zuen, eta, gauez eho ahal izateko, zerbait egiten zuten hura isildu ahal izateko. Gero, etxean ogia egiten zuten.</p>

19. Estraperloa eta errazionamendua

- **Erref:** AZP-036/030
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:33:00. **Bukatu:** 00:34:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Aste barruan ez zuten otordu asko ematen tabernan. Estraperloan lortzen

zuten tabernarako janaria. Jatekoa izanez gero nahikoa izaten zen. Beizamako eta Nuarbeko txahala estraperloan erosten zuten jan ahal izateko.

20. Solfeoa eta latinezko abestiak

- **Erref:** AZP-036/032
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:34:56. **Bukatu:** 00:35:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Koruan ibili zen 14 urtera arte. Urrestillan ba omen zen organista bat eta herriko gazte guztiek ikasi zuten solfeoa harekin debalde. Elizako kantuak latinez abesten zituzten.

21. Zestoara helduan dantza egitera

- **Erref:** AZP-036/034
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:36:35. **Bukatu:** 00:37:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Erromerian dantza soltean egin behar izaten zen, "dultzemeneoa" galarazita baitzegoen. Zestoan dantza heldua libre izaten omen zen, eta hara joaten ziren dantzara. Zestoan neska bati dantza egiteko eskatu zion, eta berriketan hasi zirenean non jakin zuen bere Zumaiaiko lehengusua zela.

22. Erromeriak eta Zumarragako Santa Luziak

- **Erref:** AZP-036/035
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:37:33. **Bukatu:** 00:38:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Oinatz, Nuarbe eta Matxinbentako erromeriatara joaten ziren, eta Santa Luzia jaietan Zumarragara trenez joaten ziren. Urolako trena "sinpatikoa" zela dio, asko mugitzen omen zen.

23. "Cine Luminor, Potxolo timador"

- **Erref:** AZP-036/036
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:38:28. **Bukatu:** 00:39:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Azpeitira askotan joaten ziren zinera. Soreasu zinemara joango ziren. Lehenago beste areto txiki bat bazen, Luminor izenekoa "cine Luminor, Potxolo timador" esaten zioten jabeari garai hartan zinea bekatu zelako. Gregorio Segurola "Potxolo" bere familiako zela dio, eta gerra garaian emazte eta semeekin kanpora joan behar izan zutela dio.

Aristi Garate, Joxe Mari | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-07

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com